

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

1/2013 FORU DEKRETU ARAUA, otsailaren 5koa, balantzeak eguneratzeari buruzkoa.

Sozietateen gaineko Zergan, oinarri ezargarria kontabilitate emaitzatik abiatuta zehazten da, eta emaitza hori kalkulatzeko Merkataritzako Kodean, Kontabilitate Plan Orokorrean eta horiek garatzen dituzten xedapenenetan ezarritako merkataritza arauak aplikatuz, betiere zergaren foru arauan bertan jasotako prezeptuen arabera zilegi den zuzenketa eginez.

Hortaz, ondare elementuen balioa kontabilitate-arauari jarraiki zehazten da oro har, eta horren ondorioz, gehienetan eskurapen prezioan edo ekoizpen kostuan oinarritzen da, eta ez da denboraren joanagatik aldatzen inflazioaren bilakaerara egokitzeko.

Hori dela-eta, ondasunak euren kostu historikoaren arabera baloratuta daude, eta horrek berekin dakar haien eskualdaketan agerian jartzen den kontabilitate-errenta termino nominaletan zehaztea, ez errealetan, inflazioak nola eragin dion kontuan izan gabe. Horregatik, sozietateen gaineko zergaren foru arauan monetaren balio-galera zuzentzeko mekanismo bat ezarrita dago, eta haren helburua da errenta nominalak ez kargatzea eta diruak inflazioaren ondorioz duen balio-galera kontuan izatea.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, beste horrenbeste esan dezakegu jarduera ekonomikoak egiten dituzten eta etekin garbia zuzeneko zenbatespenaren modalitate arruntaren arabera kalkulatzeko duten zergadunentzat; eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan ere berdinean esan dezakegu establezimendu iraunkor bidez jarduten duten zergadunentzat.

Aldian behin, arauak onartzen dira aipatutako entitate eta pertsona fisikoen balantzeetan erregistratutako zenbait aktiboren balioa eguneratzeko. Horrela, arau horietan ezartzen diren erregelak aplikatuta, inflazioaren eragina ezabatu daiteke eta eskurapenarena baino balio handiagoa aitortu.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan balantzeen azken eguneratzea 1996. urtean baimendu zen, balantzeak eguneratzeari buruzko abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua dela medio hain zuzen.

Harrez gero hamasei urte baino gehiago igaro dira, eta kontuan izan behar da egungo egoera ekonomikoan enpresen balantzeak indartzea funtsezko elementua dela enpresok baldintza hobek izan ditzaten finantza-merkatuetara iristeko; hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak zilegi jo du orain ere balantzeak eguneratzeari ekitea inflazioak aktiboen kontabilitate-balioan duen efektua ezabatuz eta, horrela, enpresen aktiboen balantzeak balantzeetan hobeto islatzeko.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

DECRETO FORAL-NORMA 1/2013, de 5 de febrero, de actualización de balances.

En el Impuesto sobre Sociedades la base imponible se determina partiendo del resultado contable, calculado conforme a las normas mercantiles establecidas en el Código de Comercio, en el Plan General de Contabilidad y en las disposiciones que los desarrollan, y corrigiéndolo por aplicación de los preceptos establecidos en la propia Norma Foral del Impuesto.

El valor de los elementos patrimoniales es por tanto, con carácter general, el que se determina conforme a las normas contables y, en consecuencia, en la mayoría de los supuestos se caracteriza por basarse en el precio de adquisición o en el coste de producción, sin que sea objeto de modificación por el transcurso del tiempo para adaptarlo a la evolución de la inflación.

Esto hace que los bienes se encuentren valorados por su coste histórico, lo cual provoca que en las transmisiones de los mismos, la renta contable que se ponga de manifiesto esté determinada en términos nominales y no reales, sin tener en cuenta el efecto que la inflación ha producido sobre la misma. Por ello, la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades establece un mecanismo de corrección de la depreciación monetaria con la finalidad de no gravar rentas nominales y tener en cuenta la pérdida del valor del dinero como consecuencia de la inflación.

En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas podemos establecer consideraciones similares para los supuestos de contribuyentes que realicen actividades económicas y que determinen su rendimiento neto mediante la aplicación de la modalidad normal del método de estimación directa, así como en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes para contribuyentes que operen mediante establecimiento permanente.

Periódicamente, se suelen aprobar normas que permiten una actualización del valor de determinados activos registrados en los balances de las entidades y personas físicas mencionadas, de tal manera que puede eliminarse el efecto de la inflación y reconocerse un valor superior al de adquisición mediante la aplicación de las reglas que se establecen en las citadas normas.

La última vez que se autorizó una actualización de balances en el Territorio Histórico de Gipuzkoa fue en el año 1996, en concreto, mediante la aplicación de lo previsto en la Norma Foral 11/1996, de 5 de diciembre, de Actualización de Balances.

Habiendo transcurrido más de dieciséis años desde entonces, y teniendo presente que en la actual coyuntura económica el robustecimiento de los balances de las empresas es un elemento esencial a los efectos de poder acceder en mejores condiciones a los mercados financieros, la Diputación Foral de Gipuzkoa entiende procedente acometer una nueva actualización de balances para eliminar los efectos de la inflación del valor contable de los activos a los que se aplica, permitiendo con ello que los balances reflejen más adecuadamente la valoración de los activos de las empresas.

Balantzeak eguneratzeak ondorio positiboak izan ditzake enpresen esparruan, barne finantzaketa bera ez ezik kapitalen merkaturako sarbidea ere erraztuko baititu; horrenbestez, foru dekretu arau honen bidez balantzeak eguneratzeko aukera ematen zaie bai Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboei, bai jarduera ekonomikoak egiten dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei, bai eta Espainiako lurraldean establezimendu iraunkorraren bitartez diharduten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunei ere.

Sozietateen gaineko Zergan aurtengo urterako aurreikusita dagoen aldaketak gomendatzen zuen aldaketa hori aprobetxatzea horrelako neurri bat ezartzeko; hala ere, ezin da alde batera utzi ezen bai lurralde erkidean eta bai beste lurralde historiko batzuetan balantzeak eguneratzeko arauak onartu direla 2012ko abenduaren 31tik aurrerako ondorioekin, eta Gipuzkoan horrelakorik orain ez onartzeak desorekak eragingo dituela eta enpresen arazoak areagotuko dituela dagoeneko zaila den egoera batean.

Uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 14. artikuluan xedatzen du presazko arrazoiak daudenean Diputatuen Kontseiluak behin-behineko arau xedapenak eman ahal izango dituela; xedapen berezi horiek foru dekretu arauak izango dira eta ezin eragingo diete foru organoen antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari.

Foru dekretu arauak Batzar Nagusietan eztabaidatu eta osozrik bozkatu behar dira berehala, berretsiak izateko.

Horiek horrela, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eta establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunek, hain zuzen ere 2. artikuluan aipatzen direnek, egin ahal izango dute foru dekretu arau honetan arautzen den balio-eguneratzea.

Zergadunek zerga-baterakuntzaren araubidean tributatzen badute Sozietateen gaineko Zerga arautzen duen uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak VIII. tituluaren IX. kapituluaren ezarritakoaren arabera, eguneratze eragiketarako banakako araubidean egingo dira.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru dekretu arau honetan xedatutakoa honako hauei aplikatuko zaie:

a) Sozietateen gaineko Zergaren Gipuzkoako Lurralde Historikoko araudia aplikatu behar duten entitateei.

b) Jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisikoei, beren kontabilitatea Merkataritza Kodearen arabera eramaten dutenean edo jarduera ekonomikoaren erregistro liburuak eraman behar dituztenean, baldin eta pertsona haiei aplikagarri bazaie abenduaren 29ko 10/2006 Foru Araua, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Por los efectos positivos que puede generar en el ámbito empresarial, al favorecer tanto la financiación interna como el mejor acceso al mercado de capitales, se establece por medio del presente decreto foral-norma la opción de realizar una actualización de balances, para los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que realicen actividades económicas y los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes que operen en territorio español a través de un establecimiento permanente.

La modificación prevista para este año del actual Impuesto sobre Sociedades aconsejaba el establecimiento de una medida de este tipo en dicha modificación, pero no se puede obviar el hecho de que tanto en territorio común como en otros territorios históricos se han aprobado normas de actualización de balances con efectos a 31 de diciembre de 2012, por lo que su no aprobación en este momento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa ocasionará desajustes y complicaciones añadidas a las empresas en una coyuntura ya difícil de por sí.

El artículo 14 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, regula la posibilidad de que el Consejo de Diputados dicte, por razones de urgencia, disposiciones normativas provisionales que tomarán la forma de decreto foral-norma, y que no podrán afectar a la organización, régimen y funcionamiento de los órganos forales.

Las disposiciones así adoptadas deberán ser inmediatamente sometidas a debate y votación de totalidad de las Juntas Generales para su convalidación.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas y previa deliberación y aprobación del Consejo de Diputados en sesión del día de la fecha,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

Los sujetos pasivos del Impuesto sobre Sociedades, y los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y del Impuesto sobre la Renta de no Residentes con establecimiento permanente, a los que se refiere el artículo 2 siguiente, podrán acogerse a la actualización de valores regulada en el presente decreto foral-norma.

En el caso de contribuyentes que tributen en el régimen de consolidación fiscal, de acuerdo con lo establecido en el capítulo IX, título VIII de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, las operaciones de actualización se practicarán en régimen individual.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Lo dispuesto en este decreto foral-norma será de aplicación a:

a) Las entidades a las que resulte de aplicación la normativa del Impuesto sobre Sociedades del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Las personas físicas que realicen actividades económicas, que lleven su contabilidad conforme al Código de Comercio o estén obligadas a llevar los libros registros de su actividad económica, a las que resulte de aplicación la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según lo previsto en el artículo 2 de la misma.

c) Zergadun ez-egoiliarrei, baldin eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauaren 1.2 artikuluko b), c) eta d) letretan aipatzen den establezimendu iraunkorraren bitartez jarduten badute.

3. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

Foru dekretu arau honetan erregulatzen den balio-eguneratzea printzipio hauei jarraiki egingo da:

1. Borondatezkoa izango da.
2. Eguneratu daitezkeen ondasun guzti-guztiei eragin behar die, foru dekretu arau honen 4.3 artikuluan xedatutakoa eragotzi gabe.
3. 2012ko abenduaren 31ko kontabilitatean edo erregistro-liburuetan ageri diren ondare-elementuak eguneratuko dira, foru dekretu arau honen 5. artikuluan ezarritako eran.

Zergaldia ez badator bat urte naturalarekin, 2012ko abenduaren 31 igaro ondoren amaitzen den lehen zergaldiko azken egunean kontabilitatean ageri diren ondare elementuak eguneratuko dira.

4. Balio-eguneratzea zergaldi bakarrean egin behar da.
5. Sozietateen gaineko Zergaren aitortpena, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena erregelamenduz ezarrita dagoen epean aurkeztu behar dira, eguneratze honi dagozkion datuak barruan direla.
6. Xedapen honetan ezarritakoa ez da aplikatuko kontabilitate liburuetan (edo erregistro liburuetan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek horrelako liburuak eraman behar dituzten kasuetan) ondare elementu erregistratu gabeak sartzeko eragiketak egiten direnean, ez eta existitzen ez diren pasiboak liburu horietatik kentzeko eragiketak egiten direnean.
7. Eguneratzea egin ondoren, ezin da egindako aukera hori aldatu eta indarririk gabe utzi.

4. artikulua. *Eguneratu daitezkeen elementuak.*

1. Espainian zein atzerrian kokatuta dauden ibilgetu materialaren zein higiezinatako inbertsioen elementuak eguneratu daitezke. Establezimendu iraunkorra duten Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuek establezimendu iraunkor horri atxikita egon behar dute.

2. Hauek ere eguneratu daitezke:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 116.1 artikuluan aipatzen den finantza errentamenduko araubidean eskuratutako ibilgetu materialaren zein higiezinatako inbertsioen elementuak.

Kasu honetan, eguneratzeak ondorioak izan ditzan, baldintza suntsiarazlea izango da erosteko aukera erabiltzea.

b) Emakida erabakiak direla-eta enpresa emakidadunek aktibo ukiezin gisa erregistratu dituzten ondare elementuak, betiere enpresa horiek abenduaren 23ko EHA/3362/2010 Aginduan ezarritako kontabilitate-irizpideak aplikatu behar badituzte. Kontabilitate Plan Orokorra azpiegitura publikoen enpresa emakidadunetara egokitzeko arauak onartu ziren agindu horretan.

c) Los contribuyentes no residentes que operen por mediación de establecimiento permanente a que se refieren las letras b), c) y d) del apartado 2 del artículo 1 de la Norma Foral 2/1999, de 26 de abril, del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

Artículo 3. Principios generales.

La actualización de valores regulada en este decreto foral-norma se regirá por los siguientes principios:

1. Será voluntaria.
2. Se referirá necesariamente a la totalidad de los bienes susceptibles de la misma, sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 4 de este decreto foral-norma.
3. Afectará, en los términos que se establecen en el artículo 5 de este decreto foral-norma, a los elementos patrimoniales que figuren en la contabilidad o, en su caso, en los libros registros al 31 de diciembre de 2012.

Cuando el período impositivo no coincida con el año natural, la actualización se referirá a los elementos patrimoniales que figuren en la contabilidad en la fecha en que finalice el primer período impositivo que concluya con posterioridad al 31 de diciembre de 2012.

4. Deberá realizarse en un sólo período impositivo.
5. La declaración del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas o del Impuesto sobre la Renta de No Residentes deberá presentarse dentro del plazo establecido reglamentariamente, conteniendo los datos concernientes a esta actualización.

6. No podrán acogerse a la presente disposición las operaciones de incorporación de elementos patrimoniales no registrados en los libros de contabilidad, o en los libros registros correspondientes en el caso de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que estén obligados por dicho impuesto a la llevanza de los mismos, ni las de eliminación de dichos libros de los pasivos inexistentes.

7. Una vez efectuada la actualización, no se podrá modificar la opción ejercida y dejarla sin efecto.

Artículo 4. Elementos objeto de actualización.

1. Serán actualizables los elementos del inmovilizado material y de las inversiones inmobiliarias situados tanto en España como en el extranjero. Tratándose de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de no Residentes con establecimiento permanente, los elementos actualizables deberán estar afectos a dicho establecimiento permanente.

2. También serán actualizables:

a) Los elementos del inmovilizado material y de las inversiones inmobiliarias adquiridos en régimen de arrendamiento financiero a que se refiere el apartado 1 del artículo 116 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

En este caso, los efectos de la actualización estarán condicionados, con carácter resolutorio, al ejercicio de la opción de compra.

b) Los elementos patrimoniales correspondientes a acuerdos de concesión registrados como activo intangible por las empresas concesionarias que deban aplicar los criterios contables establecidos por la Orden EHA/3362/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban las normas de adaptación del Plan General de Contabilidad a las empresas concesionarias de infraestructuras públicas.

3. Eguneratzeak, nahitaez, eguneratu daitezkeen elementu guztiei eta haien amortizazioei eragin behar die, ondasun higiezin kasuan izan ezik; izan ere, kasu horretan, higiezin bakoitza modu independentean eguneratzea aukeratu ahal izango da.

Higiezinak eguneratzen direnean, bereizi egin behar da zein balio dagokion lurzoruari eta zein eraikuntzari.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eguneratu daitezkeen elementuek jarduera ekonomikoari atxikita egon behar dute.

5. artikulua. Eguneratzea noiz eta nola kontabilizatu.

1. Balio-eguneratzea egingo da:

a) Oro har, 2012ko abenduaren 31n itxitako balantzean ageri diren elementu eguneragarriei dagokienez.

b) Zergaldia eta urte naturala bat ez datozen entitateen kasuan, 2012ko abenduaren 31 igaro ondoren itxitako lehen balantzean ageri diren elementu eguneragarriei dagokienez.

c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga dela-eta erregistro-liburuak eraman behar dituzten zerga horren zergadunen kasuan, 2012ko abenduaren 31n liburu horietan ageri diren elementu eguneragarriei dagokienez.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aintzat hartuko dira, gutxienez, izaera horrekin egin behar ziren amortizazio fiskalak.

Guztiz amortizatutako elementuak ez dira ezein kasutan eguneratuko.

2. Eguneratze-eragiketen ondorioz sortzen diren kontabilitate errebalorizazioen zenbatekoa «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontura eramango da, eta kontu hori funts propioen parte izango da.

Jarduera ekonomikoaren erregistro-liburuak eraman behar dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, kontabilitate errebalorizazioen zenbatekoa inbertsio-ondasunen erregistro-liburuan jaso behar da.

3. Eguneratze-eragiketarako egiteko epea artikuluko honen 1. apartatuan balantzea itxeko aipatzen den egunean hasi eta balantzea onartzeko epearen azken egunean amaituko da.

Pertsona juridikoen kasuan, balantze eguneratua sozietateko organo eskudunak onartu behar du.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eguneratze-eragiketarako egiteko epea 2012ko abenduaren 31n hasi eta zerga horren 2012ko ekitaldiko aitorpena aurkezteko epearen azken egunean amaituko da.

3. La actualización se referirá necesariamente a todos los elementos susceptibles de la misma y a las correspondientes amortizaciones, salvo en el caso de los inmuebles, respecto a los cuales podrá optarse por su actualización de forma independiente para cada uno de ellos.

En el caso de inmuebles, la actualización deberá realizarse distinguiendo entre el valor del suelo y el de la construcción.

4. En el caso de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, los elementos actualizables deberán estar afectos a la actividad económica.

Artículo 5. Momento y forma de contabilización de la actualización.

1. La actualización de valores se practicará:

a) Con carácter general, respecto de los elementos susceptibles de actualización que figuren en el balance cerrado a 31 de diciembre de 2012.

b) Cuando se trate de entidades cuyo período impositivo no coincida con el año natural, respecto de los elementos susceptibles de actualización que figuren en el primer balance cerrado con posterioridad al 31 de diciembre de 2012.

c) Cuando se trate de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que estén obligados por dicho impuesto a la llevanza de libros registros, respecto de los elementos susceptibles de actualización que figuren en los mismos a 31 de diciembre de 2012.

A los efectos de lo dispuesto en este apartado, se tomarán, como mínimo, las amortizaciones que debieron realizarse con dicho carácter.

En ningún caso se actualizarán los elementos que hayan sido totalmente amortizados.

2. El importe de las revalorizaciones contables que resulten de las operaciones de actualización se llevará a la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», que formará parte de los fondos propios.

Tratándose de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que estén obligados a llevar los libros registros de su actividad económica, el importe de la revalorización contable deberá reflejarse en el libro registro de bienes de inversión.

3. Las operaciones de actualización se realizarán dentro del período comprendido entre la fecha de cierre del balance a que se refiere el apartado 1 de este artículo y el día en que termine el plazo para su aprobación.

Tratándose de personas jurídicas, el balance actualizado deberá estar aprobado por el órgano social competente.

En el caso de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, las operaciones de actualización se realizarán dentro del período comprendido entre el 31 de diciembre de 2012 y la fecha de finalización del plazo de presentación de la declaración por dicho impuesto correspondiente al período impositivo 2012.

6. artikulua. Eguneratze-koefizienteak.

Ondoko koefizienteak aplikatuta egingo dira eguneratze-eragiketak:

Artículo 6. Coeficientes de actualización.

Las operaciones de actualización se practicarán aplicando los siguientes coeficientes:

	<i>Koefizientea</i>
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa	2,391
1984ko ekitaldian	2,172
1985eko ekitaldian	2,004
1986ko ekitaldian	1,887
1987ko ekitaldian	1,798
1988ko ekitaldian	1,717
1989ko ekitaldian	1,635
1990eko ekitaldian	1,571
1991ko ekitaldian	1,519
1992ko ekitaldian	1,473
1993ko ekitaldian	1,460
1994ko ekitaldian	1,432
1995eko ekitaldian	1,366
1996ko ekitaldian	1,318
1997ko ekitaldian	1,296
1998ko ekitaldian	1,349
1999ko ekitaldian	1,300
2000ko ekitaldian	1,213
2001eko ekitaldian	1,196
2002ko ekitaldian	1,175
2003ko ekitaldian	1,158
2004ko ekitaldian	1,144
2005eko ekitaldian	1,123
2006ko ekitaldian	1,103
2007ko ekitaldian	1,064
2008ko ekitaldian	1,038
2009ko ekitaldian	1,027
2010eko ekitaldian	1,026
2011ko ekitaldian	1,010
2012ko ekitaldian	1,000

	<i>Coeficiente</i>
Con anterioridad a 1 de enero de 1984	2, 391
En el ejercicio 1984	2, 172
En el ejercicio 1985	2, 004
En el ejercicio 1986	1, 887
En el ejercicio 1987	1, 798
En el ejercicio 1988	1, 717
En el ejercicio 1989	1, 635
En el ejercicio 1990	1, 571
En el ejercicio 1991	1, 519
En el ejercicio 1992	1, 473
En el ejercicio 1993	1, 460
En el ejercicio 1994	1, 432
En el ejercicio 1995	1, 366
En el ejercicio 1996	1, 318
En el ejercicio 1997	1, 296
En el ejercicio 1998	1, 349
En el ejercicio 1999	1, 300
En el ejercicio 2000	1, 213
En el ejercicio 200	1, 196
En el ejercicio 2002	1, 175
En el ejercicio 2003	1, 158
En el ejercicio 2004	1, 144
En el ejercicio 2005	1, 123
En el ejercicio 2006	1, 103
En el ejercicio 2007	1, 064
En el ejercicio 2008	1, 038
En el ejercicio 2009	1, 027
En el ejercicio 2010	1, 026
En el ejercicio 2011	1, 010
En el ejercicio 2012	1, 000

7. artikulua. Nola aplikatu eguneratze-koefizienteak.

1. Koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskurapen prezioaren edo ekoizpen kostuaren gainean, ondare elementua eskuratu edo ekoiztu den urtearen arabera.

Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzok egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Eskurapen prezioari edo ekoizpen kostuari dagozkion eta kenkaridunak izandako amortizazio kontableen gainean, amortizazioak egin diren urtearen arabera.

2. Ondare elementuak eguneratuta badaude balantzeak eguneratzeari buruzko abenduaren 5eko 11/1996 Foru Arauan jasotakoaren arabera, koefizienteak aplikatuko dira eskurapen prezioaren gainean eta prezio hori dela-eta kenkaridunak izan ziren amortizazioen gainean, eguneratze eragiketen ondorioz izandako balio-gehikuntza garbia kontua hartu gabe.

3. Kreditu eta aseguru entitateen kasuan, artikulua aplikatzeari begira, higiezin errealizazioak ez dira kontuan hartuko lehendik zerga-ondorioz izan ez dutenean eta jarraian aipatzen diren xedapenak aurrenekoz aplikatzeagatik gertatu badira: Abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra, kreditu entitatei zuzendua, informazio finantzario publiko eta erreserbatuko arauari eta finantzako egoera-orriari buruzkoa; eta uztailaren 24ko 1317/2008 Errege Dekretua, aseguru entitateen kontabilitate plana onartzen duena.

4. Aurreko apartatuetan ezarritakoa aplikatuta kalkulatzen diren zenbatekoen arteko diferentziari ondare elementuak lehenago zuen balio garbia gutxiko zaio.

Ondare elementu eguneratuak lehenago zer balio zuen kalkulatzeke, kontuan hartuko dira aurreko artikuluan aipatutako eguneratze koefizienteak aplikatzeko erabiliko balioak, amortizazioak barne.

8. artikulua. Eguneratze-erreserbaren kontabilitateko zuzkidura.

1. Aurreko zenbakian deskribatutako eragiketen ondorioz lortzen den zenbatekoari gutxitu behar zaio balantzeak eguneratzeari buruzko abenduaren 5eko 11/1996 Foru Arauan aurreikusitako eragiketetatik eratorritako balio-gehikuntza garbia. Eragiketa horretatik ateratzen den diferentzia positiboak monetaren balio-galera edo ondare elementu eguneratuaren balio gehikuntza garbia adieraziko du.

Zenbateko hori «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuan abonatu da, eta foru dekretu arau honen eguneratze-eragiketak egin aurreko balioari gehituta, ondare elementu eguneratuaren balio berria emango du.

2. Balio eguneratu berriak ezin du gaintu ondare elementu eguneratuaren merkatuko balioa, betiere higadura tekniko eta ekonomikoengatik eta subjektu pasiboak edo zergadunak emandako erabilerarengatik zein egoeratan dagoen aintzat hartuta.

3. «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuaren saldoa ezin da zorduna izan, ez eguneratze-eragiketen multzoari dagokionez, ez ondare elementuren bat eguneratzeari dagokionez.

Artículo 7. Aplicación de los coeficientes de actualización.

1. Los coeficientes se aplicarán de la siguiente manera:

a) Sobre el precio de adquisición o coste de producción, atendiendo al año de adquisición o producción del elemento patrimonial.

El coeficiente aplicable a las mejoras será el correspondiente al año en que se hubiesen realizado.

b) Sobre las amortizaciones contables correspondientes al precio de adquisición o coste de producción que fueron fiscalmente deducibles, atendiendo al año en que se realizaron.

2. Tratándose de elementos patrimoniales actualizados de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral 11/1996, de 5 de diciembre, de Actualización de Balances, los coeficientes se aplicarán sobre el precio de adquisición y sobre las amortizaciones que fueron fiscalmente deducibles correspondientes al mismo, sin tomar en consideración el importe del incremento neto de valor resultante de las operaciones de actualización.

3. En el caso de entidades de crédito y aseguradoras, a efectos de la aplicación de este artículo, no se tendrán en cuenta las revalorizaciones de los inmuebles que se hayan podido realizar como consecuencia de la primera aplicación, respectivamente, de la Circular 4/2004, de 22 de diciembre, a entidades de crédito, sobre normas de información financiera pública y reservada y modelos de estados financieros, y del Real Decreto 1317/2008, de 24 de julio, por el que se aprueba el Plan de contabilidad de las entidades aseguradoras, y que no tuvieron incidencia fiscal.

4. La diferencia entre las cantidades determinadas por aplicación de lo establecido en los apartados anteriores se minorará en el importe del valor neto anterior del elemento patrimonial.

Para determinar el valor anterior del elemento patrimonial actualizado se tomarán los valores que hayan sido considerados a los efectos de aplicar los coeficientes de actualización a que se refiere el artículo anterior, incluidas las amortizaciones.

Artículo 8. Dotación contable de la reserva de actualización.

1. El importe que resulte de las operaciones descritas en el artículo anterior se minorará en el incremento neto de valor derivado de las operaciones de actualización previstas en la Norma Foral 11/1996, de 5 de diciembre, de Actualización de Balances, siendo la diferencia positiva así determinada el importe de la depreciación monetaria o incremento neto de valor del elemento patrimonial actualizado.

Dicho importe se abonará a la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», y sumado al valor anterior a la realización de las operaciones de actualización que resulten de aplicación del presente decreto foral-norma, determinará el nuevo valor del elemento patrimonial actualizado.

2. El nuevo valor actualizado no podrá exceder del valor de mercado del elemento patrimonial actualizado, teniendo en cuenta su estado de uso en función de los desgastes técnicos y económicos y de la utilización que de ellos se haga por el sujeto pasivo o contribuyente.

3. El saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero» no podrá tener carácter deudor, ni en relación con el conjunto de las operaciones de actualización ni en relación con la actualización de algún elemento patrimonial.

9. artikulua. Eguneratzen diren ondasunen gaineko ondorio fiskalak.

1. Eguneratze-eragiketetatik ondorioztatzen den balio-gehikuntza garbia 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten den lehenengo zergalditik aurrera amortizatuko da, ondare elementuaren bizitza baliaigarria amaitu arteko urte guztietan, berrikuntzei, zabalkuntzei eta hobekuntzei dagozkien baldintza berdinetan.

2. Eskualdaketan izandako galerak edo ondare elementu eguneratuen balio-narriadurak «otsailaren 5eko 11/2012 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» kontuan elementu horiei dagokien saldoa gutxituta integratuko dira oinarri ezargarrarian.

Apartatu honetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei.

10. artikulua. Eguneratzearen karga bakarra.

1. Eguneratzea egiten duten zergadunek 100eko 5eko karga bakarra ordaindu beharko dute «otsailaren 5eko 11/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuko saldo hartzekodunaren gainean.

Beren jarduera ekonomikoen erregistro-liburuak eraman behar dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, eguneratutako ondare elementuen balio-gehikuntza garbiari aplikatuko zaio karga bakarra.

2. Karga bakar horren zerga-gaia gauzatzat joko da, pertsona juridikoen kasuan, organo eskudunak balantze eguneratua onartzen duenean; eta pertsona fisikoen kasuan, balantze eguneratua formulatzen denean.

Beren jarduera ekonomikoaren erregistro-liburuak eraman behar dituzten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, zerga-gaia 2012ko abenduaren 31n gauzatzat joko da.

3. Eguneratze eragiketak jasotzen dituen balantzearen zergaldiko aitortpena aurkezten den egunean izango da exigigarria karga bakarra.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunen kasuan, 2012ko zergaldiko aitortpena aurkezten den egunean izango da exigigarria karga bakarra.

4. Karga hau autolikidatu eta ordaintzeko epea, eguneratze-eragiketak jasotzen dituen balantzeari dagokion zergaldia Sozietateen gaineko Zergan edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan aitortzeko edo, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 2012ko aitortpena aurkezteko ezarrita dagoena izango da, dagokionaren arabera.

Aitortpen horretan balantze eguneratua eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak zehazten duen informazio osagarria jaso beharko dira.

5. Aitortpena epez kanpo aurkeztuz gero, eguneratze-eragiketak baliorik gabe geratuko dira.

6. Kontabilitateari dagokionez, karga bakarraren zenbatekoa ez da zerga-kuotatzat hartuko ez Sozietateen gaineko Zergan, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, ez Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan. Haren zenbatekoa «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuan kargatuko da; eta ez da gastu kengarria izango zerga horietan.

Artículo 9. Efectos fiscales respecto de los bienes objeto de actualización.

1. El incremento neto de valor resultante de las operaciones de actualización se amortizará, a partir del primer período impositivo que se inicie a partir de 1 de enero de 2015, durante aquéllos que resten para completar la vida útil del elemento patrimonial, en los mismos términos que corresponde a las renovaciones, ampliaciones o mejoras.

2. Las pérdidas habidas en la transmisión o deterioros de valor de elementos patrimoniales actualizados se minorarán, a los efectos de su integración en la base imponible, en el importe del saldo de la cuenta «reserva de revaloración del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», correspondiente a dichos elementos.

Lo dispuesto en este apartado no será de aplicación a los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 10. Gravamen único de actualización.

1. Los contribuyentes que practiquen la actualización deberán satisfacer un gravamen único del 5 por 100 sobre el saldo acreedor de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero».

Tratándose de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que estuvieran obligados a llevar los libros registros de su actividad económica, el gravamen único recaerá sobre el incremento neto de valor de los elementos patrimoniales actualizados.

2. Se entenderá realizado el hecho imponible de este gravamen único, en el caso de personas jurídicas, cuando el balance actualizado se apruebe por el órgano competente; y, en el caso de personas físicas, cuando se formule el balance actualizado.

Tratándose de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas que estuvieran obligados a llevar los libros registros de su actividad económica, el hecho imponible se entenderá realizado el día 31 de diciembre de 2012.

3. El gravamen único será exigible el día que se presente la declaración relativa al período impositivo al que corresponda el balance en el que constan las operaciones de actualización.

Tratándose de contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el gravamen único será exigible el día que se presente la declaración correspondiente al período impositivo 2012.

4. Este gravamen se autoliquidará e ingresará en el plazo previsto para la declaración del Impuesto sobre Sociedades o del Impuesto sobre la Renta de no Residentes relativa al período impositivo al que corresponda el balance en el que constan las operaciones de actualización, o del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas correspondiente al período impositivo 2012, según corresponda.

En dicha declaración constará el balance actualizado y la información complementaria que se determine por la diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

5. La presentación de la declaración fuera de plazo será causa invalidante de las operaciones de actualización.

6. A efectos contables, el importe del gravamen único no tendrá la consideración de cuota del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, ni del Impuesto sobre la Renta de no Residentes, su importe se cargará en la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», y no tendrá la consideración de gasto fiscalmente deducible de los citados impuestos.

7. Karga bakarra zerga-zortzat joko da.

8. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak onartuko du, foru agindu bidez, karga bakar hau aitortzeko eredu.

11. artikulua. Eguneratze-erreserbaren kontuko saldoa.

1. «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuko saldoa ez da sartuko ez Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarrian, ez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenean, ez Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarenean.

2. «Otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» kontuko saldoa ezingo da erabili harik eta Zerga Administrazioak hura egiaztatzen eta onartzen duen arte, salbu eta foru dekretu arau honen 9.2 artikuluan ezarritakoa aplikatu zaien ondare elementuei dagokien zatian.

3. Aurreko apartatuan aipatzen den egiaztapena hiru urteko epean egin behar da, foru dekretu arau honen 10. artikuluan aipatzen den aitortpena aurkezten den egunetik hasita.

4. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, eta foru dekretu arau honen 12. artikuluan aurreikusitako informazio betebeharraragotzi gabe, kasu hauetan ez da ulertuko kontuko saldoa erabili denik:

a) Bazkide edo akziodunak sozietatetik bereizteko esku-bidea erabiltzen duenean.

b) Kontuko saldoa bere osoan edo zati batean ezabatzen denean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996ko Foru Arauaren VIII. tituluko X. kapituluan zehaztutako araubidea aplikagarri duten eragiketak egiteagatik. Bategiteak, zatiketak, aktibo-ekarpenak, balore trukeak, aktibo nahiz pasibo osoaren lagapenak eta sozietate europar baten edo sozietate kooperatibo europar baten sozietate helbidea Europar Batasuneko estatu batetik beste estatu batera aldatzeko araubide berezia jasotzen da kapitulu horretan.

c) Entitateak legezko betebeharrak eraginda aplikatu behar duenean kontuko saldoa.

5. «Otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» kontuko saldoa administrazioaren egiaztapenaren ondorioz gutxitzen bada, gutxitutako saldoari karga bakarrean dagokion zenbatekoa ofizioz itzuliko da.

Pertsona fisikoen kasuan, arau bera aplikatuko da balio-gehikuntza garbia gutxitzen bada.

Apartatu honetan aipatzen diren itzulketetan ez da beranduzta interesik sortuko.

6. Behin egiaztapena eginda edo hura egiteko epea behin igarota, kontuko saldoa erabili ahal izango da kontabilitateko emaitza negatiboak ezabatzeko, sozietatearen kapitala handitzeko, edo, eguneratze eragiketak jasotzen dituen balantzea itxi ondorengo hamar urte igarota, xedapen libreko erreserbak egiteko.

Dena den, saldo hori ezingo da banatu, ez zuzenean ez zeharka, harik eta eguneratutako ondare elementuak erabat amortizatu, eskualdatu edo balantzetik kendu arte.

7. El gravamen único tendrá la consideración de deuda tributaria.

8. El modelo de declaración de este gravamen único se aprobará por orden foral de la diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas.

Artículo 11. Saldo de la cuenta de reserva de actualización.

1. El saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», no se integrará en la base imponible del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas ni del Impuesto sobre la Renta de no Residentes.

2. El saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», será indisponible hasta que sea comprobado y aceptado por la Administración tributaria, excepto en la parte que corresponda a elementos patrimoniales respecto de los que haya resultado de aplicación lo dispuesto en el apartado 2 del artículo 9 del presente decreto foral-norma.

3. La comprobación a que se refiere el apartado anterior deberá realizarse dentro de los tres años siguientes a la fecha de presentación de la declaración a que se refiere el artículo 10 de este decreto foral-norma.

4. A los efectos de lo establecido en el presente artículo, no se entenderá que se ha dispuesto del saldo de la cuenta, sin perjuicio de la obligación de información prevista en el artículo 12 de este decreto foral-norma, en los siguientes casos:

a) Cuando el socio o accionista ejerza su derecho a separarse de la sociedad.

b) Cuando el saldo de la cuenta se elimine, total o parcialmente, como consecuencia de operaciones a las que sea de aplicación el régimen especial de las fusiones, escisiones, aportaciones de activos, canje de valores, cesiones globales del activo y del pasivo y cambio de domicilio social de una Sociedad Europea o una Sociedad Cooperativa Europea, de un estado miembro a otro de la Unión Europea, previsto en el capítulo X del título VIII de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

c) Cuando la entidad deba aplicar el saldo de la cuenta en virtud de una obligación de carácter legal.

5. En caso de minoración del saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», como consecuencia de la comprobación administrativa, se devolverá, de oficio, el importe del gravamen único que corresponda al saldo minorado.

Esta misma regla se aplicará en caso de minoración del incremento neto del valor, tratándose de personas físicas.

Por las devoluciones a que se refiere este apartado no se devengará interés de demora.

6. Una vez efectuada la comprobación o transcurrido el plazo para la misma, el saldo de la cuenta podrá destinarse a la eliminación de resultados contables negativos, a la ampliación de capital social o, transcurridos diez años contados a partir de la fecha de cierre del balance en el que se reflejaron las operaciones de actualización, a reservas de libre disposición.

No obstante, el referido saldo sólo podrá ser objeto de distribución, directa o indirectamente, cuando los elementos patrimoniales actualizados estén totalmente amortizados, hayan sido transmitidos o dados de baja en el balance.

7. Aurreko apartatuko lehen paragrafoan aipatzen diren erreserbek eskubidea emango dute Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 33. artikuluan aurreikusita dagoen kenkaria aplikatzeko, dibidenduen zergapetze bikoitzagatik.

Orobat, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 9. artikuluan 25. zenbakian jasotzen duen salbuespenerako eskubidea emango dute.

8. «Otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» kontuko saldoa artikuluan honetan jasotzen diren helburuetarako erabili beharrean beste batzuetarako erabiltzen bada, edo egiaztapena egin zein hura egiteko epea amaitu aurretik erabiltzen bada, erabili den zergaldiko oinarri ezargarrian sartu beharko da, eta saldo horrekin ezingo dira konpentsatu aurreko zergaldietako oinarri ezargarri negatiboak.

9. «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontua ezin erabiltzeari buruz eta kontu horretako saldoaren xedari buruz artikuluan honetan ezarritakoa ez zaie aplikatuko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunei.

12. artikulua. Informazioa eman beharra.

1. Elementu eguneratuak entitatearen ondarean dauden ekitaldietako urteko memorietan informazio hau jaso beharko da:

a) Eguneratzea egiteko erabilitako irizpideak. Adierazi behar da urteko kontu horietan zein ondare elementuri eragin dion eguneratzeak.

b) Balantzeko elementu eguneratu bakoitzaren zenbateko eguneratua, eta eguneratzeak amortizazioetan duen eragina.

c) «Otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuak ekitaldian izandako mugimenduak, eta kontuaren aldaketa justifikatzen duten arrazoiak.

2. Artikulu honetan ezarritako betebeharrak ez betetzea zerga arloko arau-haustetzat joko da.

Zehapen gisa, eman gabeko datu bakoitzeko 200 euroko isun finkoa ezarriko da, informaziorik ematen ez den lehen lau urteetako bakoitzean, eta 1.000 euroko isuna, hurrengo urteetako bakoitzean. «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuko saldo osoaren %50 izango da muga.

3. Horrez gain, artikuluan honetan ezarritako informazio obligazioen ez-betetze nabarmena eginez gero, «otsailaren 5eko 1/2013 Foru Dekretu Arauko errebalorizazio-erreserba» izeneko kontuko saldoa ez-betetze hori gertatzen den unean preskribatu gabe dauden eta erregularizatu daitezkeen zergaldien arteko zaharrenaren oinarri ezargarrian sartuko da, eta saldo horrekin ezingo dira konpentsatu aurreko zergaldietako oinarri ezargarri negatiboak.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. Arauak emateko ahalmena.

Baimena ematen zaie Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari, foru dekretu arau hau garatu eta gauatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzaten.

7. Las reservas a que se refiere el primer párrafo del apartado anterior darán derecho a la deducción por doble imposición de dividendos prevista en el artículo 33 de la Norma Foral 7/1996, de 4 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

Igualmente, darán derecho a la exención prevista en el número 25 del artículo 9 de la Norma Foral 10/2006, de 29 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

8. La aplicación del saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero» a finalidades distintas de las previstas en este artículo o antes de efectuarse la comprobación o de que transcurra el plazo para efectuar la misma, determinará la integración del referido saldo en la base imponible del período impositivo en que dicha aplicación se produzca, no pudiendo compensarse con dicho saldo las bases imponibles negativas de períodos impositivos anteriores.

9. Lo previsto en este artículo en relación con la indisponibilidad de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero» y con el destino del saldo de la citada cuenta, no será de aplicación a los contribuyentes del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Artículo 12. Obligaciones de información.

1. Deberá incluirse en la memoria de las cuentas anuales correspondientes a los ejercicios en que los elementos actualizados se hallen en el patrimonio de la entidad, información relativa a los siguientes aspectos:

a) Criterios empleados en la actualización con indicación de los elementos patrimoniales afectados de las cuentas anuales afectadas.

b) Importe de la actualización de los distintos elementos actualizados del balance y efecto de la actualización sobre las amortizaciones.

c) Movimientos durante el ejercicio de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero», y explicación de la causa justificativa de la variación de la misma.

2. El incumplimiento de las obligaciones establecidas en este artículo tendrá la consideración de infracción tributaria.

La sanción consistirá en multa pecuniaria fija de 200 euros por cada dato omitido, en cada uno de los primeros cuatro años en que no se incluya la información, y de 1.000 euros por cada dato omitido, en cada uno de los años siguientes, con el límite del 50 por 100 del saldo total de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero».

3. Adicionalmente, el incumplimiento sustancial de las obligaciones de información previstas en este artículo, determinará la integración del saldo de la cuenta «reserva de revalorización del Decreto Foral-Norma 1/2013, de 5 de febrero» en la base imponible del primer período impositivo más antiguo de entre los no prescritos susceptible de regularización en el momento en que dicho incumplimiento se produzca, no pudiendo compensarse con dicho saldo las bases imponibles negativas de períodos impositivos anteriores.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Habilitación normativa.

Se autoriza a la Diputación Foral de Gipuzkoa y a la diputada o diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean precisas para el desarrollo y ejecución del presente decreto foral-norma.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean, eta bere 5. artikuluan ezarritako epean egiten diren eguneratze-eragiketei aplikatuko zaie.

Donostia, 2013ko otsailaren 5a.

EL DIPUTADO GENERAL,
Martín Garitano Larrañaga.

LA DIPUTADA FORAL
DEL DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS,
Helena Franco Ibarzabal.

(110)

(1306)

Segunda. Entrada en vigor.

El presente decreto foral-norma entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa, siendo de aplicación a las operaciones de actualización que se realicen en el plazo establecido en su artículo 5.

San Sebastián, a 5 de febrero de 2013.

DIPUTATU NAGUSIA,
Martín Garitano Larrañaga.

OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUKO
FORU DIPUTATUA,
Helena Franco Ibarzabal.

(110)

(1306)